

Etaparen testuingurua: Hezkuntza beti da auto-hezkuntza prozesu aktibo bat, ez baita posible ezagutza esanahitsuak eskuratzea modu pasiboan bakarrik. Ikasleek berentzat, beren ekintzetarako eta bizitzetarako garrantzitsuak diren ezagutzak barneratu nahi badituzte, modu aktiboan eskuratu behar dituzte. Hala, hedabideak erabiltzeko trebetasuna ere praktikatuko dute, baita informazioa modu kritikoan prozesatzekoa ere.

Helburuak

Etaparen bukaeran, honako hau lortu beharko lukete ikasleek:

- ✓ babesa/migrazioari buruzko ezagutza modu aktiboan hartzea
- ✓ iturriak ebaluatzen eta informazioa modu kritikoan ikertzen praktika izatea

Edukia

- ✓ Oinarrizko datuak eta gertaerak, iheserako arrazoiak, errefuxiatuen egoera helmuga-herrialdean.
- ✓ Gertaera berriak eta, segur aski, harrigarriak eta gogaikarriak ezagutzea babesa/migrazioari buruz.

Metodoak

Informazioa bilatzea.

Ariketak ezagutza/iritzia, informazio fidagarria/albiste faltsuak bereizteko, eta onargarriak ez diren orokortzeak eta sinplifikazioak ezagutzeko.

1. Etaparen trantsizioa

Oroitarazi ikasleei 1. etapan babesa/migrazioaren gaiari buruzko galderak bildu zituztela. Gaur, hemen dago gunea: mota horretako galderei buruz ongi oinarritutako informazioa non eta nola lortu.

Pausoa #1

Gai korapilatsu bat aztertzen ari gara!

1

Osatu 4 edo 6 talde (gehienez ere 6 lagunekoak, ikasle kopurua zein den). 1 eta 2 taldeek (edo 1etik 3ra) “ikerketaren 1. esleipena” jasoko dute; 3 eta 4 taldeek (edo 4tatik 6ra arte) “ikerketaren 2. esleipena” jasoko dute (ikerketaren esleipenak → [ikasleentzako lan-orriak](#)).

2

Eskatu taldeei saia daitezela esleipeneko galderei erantzuten, interneten elkarrekin egindako ikerketa baten bidez, eta aurkezpen bat presta dezatela (kartelak, power point, etab.) Aurkitu dituzten gauzekin.

Ikasgelako ezagutzen eta gaitasunen mailari buruz egindako ebaluazioaren arabera, erabaki zenbat pista emango dituzun. Horretarako, zuretzat bildu dugun [informazio-iturrien zerrenda](#) erabil dezakezu. Horiek zure herrialdeko informazio-iturriekin osa ditzakezu, adibidez: webguneak, autoritate arduradunak, GKEak edo hedabideak. Ikasleek iturri “fidagarrien” eta “arazotsuen” artean bereizten praktikatu behar dutenez, zenbait erreferentzia eman diezaiekezu; batzuk, “fidagarritzat” jotzen dituzun erakunde edo hedabideenak, eta beste batzuk, berriz, “arazotsutzat” jotzen dituzuenak (orokortze desegokiak eta albiste faltsuak emateko joera dutelako). Azken horiek, besteak beste, prentsa horia edo hedabide sentsazionalistak izan litezke, sinplifikazioak eta albiste faltsuak argitaratu ohi dituztelako, edo migrazioaren kontra agertzeagatik ezagunak diren erakundeen webguneak.

Oroitu ikerketaren gunea errefuxiatuak direla (eta ez beste migrazio-mota bat). Halaber, berrikusi termino garrantzitsuenen glosarioa.

Ikerketaren 1. esleipena

- Zehazki, zer da pertsona errefuxiatu bat? Zer beste migrazio-mota daude?
- Zenbat pertsonak lekualdatu behar izan zuten munduan aurreko urtean?
- Munduko zer herrialdetan dago errefuxiatuen kopururik handiena?
- Zenbat pertsonak alde egin zuten Europar Batasun aldera aurreko urtean?
- Zenbat pertsonak alde egin zuten gure herrialdera aurreko urtean?

- Horietatik zenbat joan ziren beste herrialde batera?
- Zer herrialdeetatik etortzen dira errefuxiatuak gure herrialdera babes bila?
- Zergatik alde egin zuten pertsona horiek gure herrialdera? Zein dira babes bilatzeko beren arrazoi nagusiak?
- Zer gertatu da errefuxiatuek gure herrialdea utzi behar izateko?

Ikerketaren 2. esleipena

- Zer egin dezakete errefuxiatuek gure herrialdean, eta zer, ez? Zer egin behar dute? Egin, mesedez, eskubide, ardura eta debeku nagusien zerrenda bat.
- Nola ematen zaie ostatu errefuxiatuei gure herrialdean?
- Irakaskuntzara (eskoletara bereziki) eta lan-merkatara sar daitezke?

1. *etapan ikerketaren esleipen honetan ez zeuden galderak bildu badira, horiek gehitu ditzakezu.*

Talde bakoitzak ikasgelan aurkeztuko ditu emaitzak (galderak → [ikasleentzako lan-orriak](#)):

- Non aurkitu ditugu erantzunak?
- Galdera berentzat zenbait erantzun aurkitu baditugu: zertan dira desberdinak? Datuei eta gertaerei dagokienez, testuaren ñabardurei eta asmoari dagokienez?
- Zer puntutan ditugu gauzak garbi eta zeinetan galdera irekiak?
- Nola fidatzen ahal gara esaten zaigunaz eta nola jakin emandako informazioa fidatzekoa den ala ez?
- Harritzen edo sutzen gaituzten ikuspegiak hartu ditugu?
- Zer sentimendu sortzen zaigu, informazio desberdina ikusten dugunean?

Taldeko emaitzen alderaketa.

- Badaude galdera berentzako erantzun desberdinak? Zein izan daiteke arrazoa?



Ikasgai honetarako, baliagarria izan daiteke **CHANGEren solaskide** baten laguntza. Adibidez, adituak “ikerketa-esleipenetako” aurkezpenak komenta ditzake, eta informazioarekin osatu, zerbait itxi gabe gelditu bada.



Horrez gain, bere ekarpena egin dezake (astia izanez gero):

Pausoa #2

Galdetu aditu bati!

1 Errefuxiatuen egoerari buruzko gertaerez eta kopuruez gehiago jakiteko, adituek azalduko dute nola bizitzen duten egoera errefuxiatuek, zer behar duten, zer desio dituzten eta zer ekarpen egin dezaketen hartu dituen herrialdeko gizartean. Estimuluak ahalik eta biziena izan behar du (argazkiekin eta lekukotasunekin).

2 Ikasleen galderak

3 Hausnarketa:

- Zer suertatu zitzaigun berria eta, beharbada, harrigarria?
- Zertan da desberdina eta zertan berdina adituaren ikuspegia, aurkitu ditugun beste batzuekin alderatuz gero?

(Testuingurua: Ikasleek ohartu behar dute aldeak ez daudela bakarrik norbaitek aipatzen dituen gertaeretan, baita pertsonak ordezkatzeko dituzten balio eta jarreretan ere, eta horiek gertaerak aurkezteko moduaren oinarria direla).

Pausoa #3

Joera orokorrak 5 minututan

Erakutsi ikasleei 5 minutuko bideo hau (ACNURen joera orokorrak behartutako lekualdaketetan), babesaren gaiaren inguruko gertaera nagusiak erakusten baititu. Bideo honek abantaila bat du; izan ere, ikasgai honetan eztabaidatutako informazioaren zati bat berresten du, eta, halaber, "aurpegia" jartzen die datuei eta gertaerei, eta, hala, garbiago bihurtzen ditu.



Beharrezkoa izanez gero, eztabaida txiki batekin jarrai dezakegu, galderen eta iruzkinen bidez. Bideo honek eztabaidarik gabeko bigarren etapa ere itxi dezake.

Hausnartzea

Azaldu etapa honetako hausnarketa-lana (Hausnarketa-lana → [ikasleentzako lan-orriak](#)). Hurrengo etaparako, mesedez:



Egin etapa honetako ezagutza harrigarri bat adierazi edo sinbolizatzen duen objektu baten argazkia. Gehitu azalpen-esalditxo bat argazkiari.



Idatzi honako galdera hauen erantzunak: Zer galdetu nahi nioke nire herrialdean bizi den errefuxiatu bati?

Ni pertsona errefuxiatu hura izanez gero: Zer nahi nuke niri galdetzea?

LABURPENA ETA TRANTSIZIOA

Eskatu ikasleei esaldi gutxi batzuetan azaltzeko zer ikasi duten. Zenbait lagunek beren ekarpena adierazi eta gero, esandakoa zure hitzetan laburbil dezakezu (ikusi etapa honen helburuak).

Orduan azal dezakezu nola izango den hurrengo etapa: "Hurrengo aldian, sakonago landuko ditugu errefuxiatuen egoera eta esperientziak."

Hurrengo etapan zenbait jarduera egin daitezkeenez, zer jarduera izango den ere esan dezakezu.

Bereziki garrantzitsua: Hurrengo etapan posible balitz pertsona errefuxiatu edo migrante batekin topaketa bat egitea, ikasleak horretarako prestatu behar zenituzke. Azaldu iezaiezu gonbidatuak esperientzia oso pertsonalez hitz egin behar duela, eta batzuk oso gogorrek eta mingarriak izango direla. Esan ikasleei galderak egin ditzaketela, eta, hala, beren interesa erakutsi, baina, beti, errespetuz. Kontua litzateke imajinatzea nola sentituko liratekeen beren esperientzia, sentimendu, desira eta itxaropen pertsonalez hitz egin behar balute ezagutzen ez duten jendearen aurrean.

GOAZEN 3. ETAPARA

Termino garrantzitsuenen glosarioa

Babesaren eta migrazioaren gaiari buruzko eztabaidan, garrantzitsua da agerikoak ematen duten terminoak argitzea eta horiek egoki erabiltzea, gaizki-ulerturik gerta ez dadin.

- ✓ **Migranteek** beren jaioterria uzten dute beste leku batean lan egin eta bizitzeko, aldi baterako edo betiko. Migrazioarako arrazoiak oso askotarikoak izan daitezke, eta borondatezkoak izan daitezke edo ez.
- ✓ Beste pertsona batzuek edo egoera batek behartuta bere etxea utzi behar duen pertsona da **errefuxiatua**.
- ✓ **Legezko esanahian** eta Errefuxiatuen estatuari buruzko Batzarraren (1951ko Errefuxiatuen Batzarra izenekoa) arabera, honela definitzen dira errefuxiatuak: “arrazarengatik, erlijioarengatik, naziotasunarengatik, gizarte-talde bateko kidea izateagatik edo iritzi politikoarengatik” jazartzen diren pertsonak. Beren herrialdean bertan lekualdatzen badira nazioartean onetsitako mugarik gurutzatu gabe, **barne-desplazatu** esaten zaie.
- ✓ **Zentzu zabalagoan**, gerren edo hondamendi naturalen ondorioz beren etxetik alde egin behar izan duten pertsonak dira errefuxiatuak. Zentzu zabalago horretan, errefuxiatuek beren etxeak utzi behar dituzte nahitaez, ez dute beste aukerarik.

Beti ezin da garbi eta zalantzarik gabe bereizi “borondatezko” eta “bortxatutako” migrazioaren artean. Askotan, “errefuxiatu ekonomiko” deitzen zaie, laguntza jasotzeko eskubidea zalantzan jartzeko. Kasu batzuetan, hala ere, arazo ekonomikoak hain dira handiak (desnutrizioa, osasun-arretaren gabezia, etab.), ezen pertsonen osasuna eta bizitza arriskuan jar baititzakete eta beren etxeetatik alde egitera behartu.

Definizio gehiago eta zehatzago bilatzen ari bazara, Migrazioaren Europako Sarearen [glosario interaktiboa](#) erabilgarria suerta daiteke, eta zenbait hizkuntzatan dago erabilgarri.

Herrialde bakoitzean espezifikokoak diren definizio eta araudi garrantzitsuak ere badaudenez, CHANGEko zure solaskideari eska diezaiokezu informazio gehiago.

Informazio iturri baliagarriak

Hurrengo web-orrialdeetan informazioa, kopuruak, datuak eta gertaerak aurkituko dituzu migrazioari eta babesari buruz. Informazio gehiago behar baduzu CHANGEko zure solaskidearekin **harremanetan jarri!**

Errefuxiatuentzako/Migratzaileentzako Jesuiten Zerbitzuaren web-orrialdeak

✓ **Nazioarteko JRS**

<https://jrs.net/es/home/>

✓ **SJM Spainia**

<https://sjme.org/eu/migratzaileentzako-jesuiten-zerbitzua/>

Nazioarteko eta Europako beste erakundeen web-orrialdeak

✓ **ACNURen web-orrialdea**

<https://www.acnur.org/es-es/>

✓ **EBren Migrazio eta Barne-Arazoetako Zuzendaritza Nagusiaren web-orrialdea**

https://ec.europa.eu/info/departments/migration-and-home-affairs_es

✓ **Vatikanoko Migratzaile eta Errefuxiatuen atalaren web-orrialdea**

<https://migrants-refugees.va/es/>

✓ **Amnistia Internazionalaren web-orrialdea**

<https://www.amnesty.org/es/what-we-do/refugees-asylum-seekers-and-migrants/>

✓ **Migrazioari buruzko naziararteko datuen ataria**

https://migrationdataportal.org/es?i=stock_abs &t=2017

Inguruko beste errekurtsoen web-orrialdeak

✓ **CEARen web-orrialdeak**

<https://www.cear.es/>

✓ **CEAR – Más que cifras**

<http://www.masquecifras.org/>

✓ **CEAR Euskadi**

<https://www.cear-euskadi.org/eu/>

✓ **CEARen hiztegia**

<https://diccionario.cear-euskadi.org/eu/?a2zaal=a>

✓ **Zurumurruen aurkako sarearen web-orrialdea**

<http://zurumurrurikez.eus/>